

## Ashoka berrikuntza sare mundialak Jose Mari Luzarraga MONDRAGON UNIBERTSITATEko coach-a eta MTako kofundatzailea nabarmendu du gazte ekintzaileak sortzeko egindako bere kontribuzioa delata.

2015/12/17

Jose Mari Luzarraga, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO coach/irakasle, MTako kofundatzailea eta unibertsitate horretako Enpresagintza Fakultateko LEINN graduaren ardatza da –Lidergo Ekintzaileko eta Berrikuntzako Gradua ezaugarri horiek dituen Espainiako gradu ofizial bakarra da–. Hark Ashokaren, gizarte-berritzaileen munduko sare handienaren, gizarte-ekintzaile aitorpena jaso zuen atzo Madrilen. Luzarraga gazte ekintzaileak sortzeko unibertsitate-hezkuntzaren eskema guztiak apurtzen ari dela uste dute, eta horregatik eman diote saria. Luzarragaz gain, beste bi gizarte-ekintzaile hauek ere jaso zuten aitorpena: Ana Urrutia doktoreak, mendekotasuna duten adineko pertsonen arreta eskaintzeko sisteman egindako iraultzagatik eta horien bizi-kalitatea hobetzeagatik; eta Rafael Matesanz nefrologoak, organoen transplante eta dohaintzetan liderra izateagatik eta osasun-sistema barrutik aldatzeagatik. Sareko gizarte-ekintzaile guztiek honako bost irizpide hauek bete behar dituzte: ideia berria, sormena, gizarte-eragina, ehun etikoa eta ekintzaile-izaera.

### Saria

Jose Mari Luzarragari eta beste bi gizarte-ekintzaileei egindako aitorpena ez da sari bat, hautaketa-prozesu zorrotz baten amaiera baizik. Aurrerantzean, hirurak Ashokaren Gizarte Ekintzaileen sare globaleko kide izango dira betiko. Horregatik, babes estrategikoa, ikusgaitasuna eta sareak eskaintzen dituen beste onura batzuk jasoko dituzte, beren lanaren inpaktua handitzeko helburuarekin.

Jose Mari Luzarragaren kasuan, Espainian arazo bat dagoela hausnartu ostean eman zaio saria; izan ere, Espainian oso gutxi ekiten da, eta oro har, banaka eta oso eskala txikian egiten da. 2013ko Global Entrepreneurship Monitor txostenaren arabera, gure herrialdean gora egin du “premiak” eragindako ekintzaileak, baina “aukera” gisa hartzen den ekintzaileak % 33an mantendu da, Europako batez bestekoaren azpitik (% 47).

Zentzu horretan, epaimahaiaren arabera, Jose Mari Luzarraga gazte ekintzaileen belaunaldi bat sortzen laguntzen ari da, elkarlanean eta esperimazio bidezko ikaskuntzan oinarritutako hezkuntza-eredu berri baten bitartez. Hark gazteak prestatzeko helburu nagusia duen hezkuntza-proposamen bat diseinatu du MONDRAGON UNIBERTSITATEAREKIN batera, LEINN unibertsitate-graduaren bitartez. Bertan, ikasleek enpresa kolektibo bat sortzen dute, besteak beste, lehen eskola-egunean.

### ASHOKA

Ashoka gizarte-berritzaileen munduko sarerik handiena da. Irabazi-asmorik gabeko erakunde global eta independentea da, eta berrikuntzaren eta gizarte-ekintzailearen aldeko apustu sendoa egiten du, aldaketen aktore izango diren herritarren gizarte bat eraikitzeko. Ashokak 3.000 gizarte-ekintzaile baino gehiagoren lana babesten du 84 herrialdetan (Espainian, 26ri eskaintzen die laguntza), baita munduan hezkuntza aldatzen ari diren ikastetxe berritzaileen lana ere. Gainera, gizarte-ekintzaileen eta enpresen arteko elkartasuna eta lankidetzak sustatzen ditu, balio ekonomiko eta sozialaren iturri berri gisa.

Gizarte-ekintzailea gizarte-arazo bat identifikatu eta, hari aurre egiteko, arazoa eragin duen sistema aldatzen duen pertsona da. Gizarte-



ekintzaileak eragindako alderdi guztiekin lan egiten du, eta munduko gizarte-erronka handienetako batzuetara hedatzen ditu irtenbide sortaileak.

#### LEINN gradua

LEINN gradu ofiziala da, baina ez da ohiko gradua. Egiten ikastea eta ekiten ekitea du helburu. Ez dago ikaslerik, leinerrak baizik, eta ez dago irakaslerik, coach deiturikoak baizik. Era berean, ez dago irakasgairik, helburuka lan egiten baita. Leinerrak benetako enpresa bat sortu behar dute beren ikaskideekin batera, eta hark fakturazio-helburu eta onura jakin batzuk izan behar ditu lehen egunetik. Gero, enpresa garatzen dute, prestakuntzak irauten duen lau urteetan zehar. Prestakuntza osatzeko, leinerrak hiru bidaiak egin behar dituzte: Finlandiara lehen ikasturtean; Estatu Batuetara, bigarren urtean; eta azkenik, suspertzen ari den herrialde batera, Txinara edo Indiara, esaterako. Finlandian 25 urte baino gehiago daramatzate metodo hori modu arrakastatsuan aplikatzen. Bertan, karrera amaitu eta hiru urtera beren konpainietan lan egiten duten ekintzaileen kopurua % 30 baino handiagoa da.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Irunen, Oñatin, Bilbon, Madrilen, Bartzelonan eta Valentzian eskaintzen du titulu hori, eta nazioartean, Shangain (Txina) eta Indian.